

Torrealdai, 1942an Foruan sortua, idazle, ikertzaile eta editorea ere bada. 1969an lehen Idazleen Elkartearen sorreran idazkari lanak egin zituen. Euskara literarioa aitzineratu zuten *Anaitasuna* eta *Jakin* aldizkarietako zuzendari izan zen. *Euskal idazleak gaur* saiakera eta *Euskal kultura gaur* ikerketa soziologikoa argitaratzeaz gain, euskarak mendeetan zehar jasandako erasoak bildu zituen 1997an *El libro negro del euskera*-n. Soziologiako tesian ere bide beretik jarraitu zuen, eta frankoren garaiko zentsuraren inguruan ikertu. PEN Klubek behin baino gehiagotan aipatu du Torrealdai zentsuraren aurka egindako lan hori. *Euskaldunon Egunkariako* Administrazio Kontseiluko lehendakari izateagatik auziperatua dago.